



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2017ko OTSAILAREN 7an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2017ko otsailaren 7an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola

Jose Ramon Hernandez Cristobal
Xabier Mugika Letamendia
Onintza Gorostidi Murua
Uxue Etxebeste Eizagirre

Bere ezin etorria azaltzen du: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - 2016ko azaroaren 29an egindako ohiko bilkuraren akta.
 - 2016ko abenduaren 27an egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2017 ekitaldirako udal aurrekonturen espedientearen hasierako onespena, hala bada.**
- 5. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2017ko 1. Eta 2. Hiruhilabeteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
- 6. Alkizako Herri Eskolak eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada.**
- 7. Tolosako hiltegi mankomunatuari 2017ko ekarpenaren onespena, hala bada.**
- 8. Beleburupe Guraso Elkarteak, 2016 urtean jasotako diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada.**
- 9. Oargi Mendi Elkarteak eginiko diru-laguntzaren eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 10. AEK 20. Korrikak eginiko eskaera aztertu, hala bada.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

11. Alkizako Herri ostatuan egin behar diren hainbat lanen esleipena, hala bada.
12. Don Juanenako instalazio elektrikoko proiektua egiteko aurrekontuaren onespena, hala bada.
13. Musika ekipoarentzat mikrofona erosteko aurrekontuaren onespena, hala bada.
14. Beste batzuk.
15. Erregu, galdera eta mozioak.

LEHENENGO PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2016ko azaroaren 29ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2016ko abenduaren 27ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

36/2016 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 30ekoa, A.M.A. andreak eginiko eskaera onestea, ebazten duena.

01/2017 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 25koa, Alkizako auzo eta baserrien seinaleztapena izeneko proiektua aurrera eramateko onespena ematea, ebazten duena.

02/2017 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 30koa, Alkizako Udaleko 2016 urteko bigarren goi-erabaketa uraren tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.

HIRUGARRENGO PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

BELARMENDI	113,74
------------	--------



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BELARMENDI	143,39
EBA ERKIZIA	1.042,87
BELARMENDI	84,10
GURDI	6,40
KEY-LAN	2,00
DIMARPE	2,48
BIDATEK	471,90
TOLOMENDI	152,50
CALPARSORO INDUSTRIAL	107,02
IZADI	152,94
CORREOS	6,18
IZFE	61,65
IBERDROLA	52,11
SEIKIN	30,25
AUDAX	255,60
AUDAX	137,65
AUDAX	667,14
AUDAX	138,22
AUDAX	346,04
AUDAX	60,46
AUDAX	50,43
AUDAX	453,02
AUDAX	30,68
AUDAX	88,55
AUDAX	314,36
AUDAX	52,73
QUISER	111,10
ITURBE ENEKO	193,60
MOVISTAR	80,61
MOVISTAR	71,62
SOLRED	56,40
ARGITU	281,29
BULEGOAK	39,41
RECAMBIOS IBARRA	7,11
ASEVASA ASESORAMIENTO	7.260,00

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **13.125,55** eurotako kopurua duen faktura zerrendari

San Martin Plaza, 12zkia.20494 Alkiza*Tel.:943 69 02 35 * e-mail: udala@alkiza.eus *web: www.alkiza.eus



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

onespena ematea.

LAUGARRENGO PUNTUA
2017 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUREN ESPEDIENTEAREN
HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Xabier Mugica zinegotzia arratsaldeko 20.00etan Udalbatza honetara bertarutzen da.

Onintza Gorostidi zinegotzia arratsaldeko 20.00etan Udalbatza honetara bertarutzen da.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2017 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Alkizako Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.
- Txostenak.
- Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-Kontuhartzaileak 2017ko otsailaren 2an egindako txostenean dioena.

Gaia eztabaidatu ondoren bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Alkizako Udaleko 2017 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingo onartzea 534.472,94 eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

SARRERAK	534.472,94€
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Zuzeneko Zergak	60.700,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2. Kap. Zeharkako Zergak	10.000,00
3. Kap. Tasak eta bestelako zergak	60.592,10
4. Kap. Transferentzi arruntak	302.530,50
5. Kap. Ondare Sarrerak	4.110,00
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak besterengan.	0,00
7. Kap. Kapital Transferentziak	95.540,34
8. Kap. Finantza aktikoak	0,00
9. Kap. Finantza Pasiboak	0,00

GASTUAK	534.472,94€
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Pertsonal gastuak	146.516,20
2. Kap. Gastuak ondas.arrunt.eta zerbitz.	126.799,50
3. Kap. Finantza gastuak	100,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	102.529,51
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak	158.527,73
7. Kap. Kapital Transferentziak	0,00
8. Kap. Finantza aktikoak	0,00
9. Kap. Finantza pasiboak	0,00

BIGARRENA.- 2017ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzeak aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurtso eta



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

alegazioak tarteratzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

LAUGARRENA.- Idazkari-kontuhartzaileak 2017ko otsailaren 2an egindako egonkortasun txostenean adierazitakoa onestea, non azaltzen den:

Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan Ogasun eta Finantza Departamenduak argitaratutako jarraibideak (2016ko azaroaren 15ekoa) dioena aplikatuz:

Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzendukok dela bermatuko duena.

Era berean, entitate batek gastuaren araua bete ez badu, baina 1/2013 Foru Arauaren 5.artikuluaren laugarren paragrafoan jasotako baldintza guztiak, aldi berean, betetzen baditu, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeztu, paragrafo horrek aurreikusten duen komunikazioa aurkeztu diezaioke Udalbatzari.

Era berean, gastuaren araua bete ez duten entitateek, planaren ordeztu, komunikazio bat aurkeztu diezaioke Udalbatzarrari, Kontu hartzaileak sinatua, entitatearen iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- 2016ko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.
- 2017erako defizit eta zor helburuak betetzea.

Gauzak horrela, aurretik esandakoa betetzearren komunikazioa aurkezten zaio Udalbatzarrari adieraziz:

- 2016ko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak direla.
- 2017rako defizit eta zor helburuak betetzen direla.

Eta argi eta garbi ikusten da Aurrekontu espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BOSTGARRENGO PUNTUA
AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2017KO 1. ETA 2. HIRUHILABETEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2017ko urtarrilaren 18an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2017 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 21.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Alkizako udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 12.000,00 euro
- Kultura: 9.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 21.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2017 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 12.000,00 euro
- Kultura: 9.000,00 euro

BIGARRENA.- 21.000,00 eurotako gastua onartzea.

SEIGARRENGO PUNTUA
ALKIZAKO HERRI ESKOLAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Herri Eskolak eginiko diru-laguntza eskaera, non ondorengoa dioen:

“Gaia: Diru-laguntza eskaera

Ezer baino lehen, gure poza eta esker ona adierazi nahi dizuegu, eskola berriaren lorpenak ilusioz bete gaituelako urte askotako borrokaren ostean. Millesker.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Eta beti diogun moduan, moralki babestuak sentitzeaz gain, zuengandik jasotzen dugun diru-laguntza ere oso baliagarria zaigu. Horregatik, berriro ere zuengana jotzen dugu 2017rako eskaera luzatuz.

Eusko Jaurlaritzaren diru-murrizketak bere horretan jarraitzen dute eta eguneroko jarduna mantentzeko Alkizako Eskolak duela bi ikasturte hartu zituen neurriak (igeriketa bi urtez behin egitea, bus-garraio gastuak ahalik eta gehien gutxitzea...) ere.

Erabaki hauen ondorioz eta guztion laguntzari esker Alkizako Eskolak bizirik eta indartsu lanean jarraitzen du, matrikulazioa mantenduz eta herriari bizia eskainiz. Tartean dago urtero udalak eskolari ematen dion laguntza anitza ere (lokalen erabilera, elkarlanerako prestutasuna, diru-laguntza,...)

ESKOLA ARTEKO PROIEKTUekin jarraitzen dugu eta gainera, ikasturte honetan IGELDOko eskola ere gurekin ari da lanean; beraz, Aduna-Berrobi-Alkiza-Igeldo gaude elkarrekin. Elkarren arteko ideia trukaketa egiten dugu, formazioa ere hiru eskolek batera eginez. Ikasturte honetan aukeratu ditugun gaiak honakoak dira:

1. Hiruhilekoa:

- *Arkitektura (arte): bizileku ezberdinak historian zehar.*
- *Arguentazio testua, debatea (ahoz)*

2. Hiruhilekoa:

- *Gorputza*
- *Albistea*

3. Hiruhilekoa:

- *Hizkuntza Lehiaketa (bertsolaritza)*
- *Ingurunea: Energia Iturriak eta Unibertsoa*

GATAZKA KUDEATZEKO EGITASMOAK ere aurrera eramaten jarraitzen dugu, eta lanketa hauen emaitzak antzematen hasi gara:

- *PACO CASCON:*
 - *Hitzaldia: guraso+irakasle+jangelako begirale*
 - *Tailerrak: irakasle+begirale*
- *GORPUTZALDIAK saioak ikasleentzat*
- *ATARI formazio saioak irakasleentzat*

Aurreko urteetan bezalaxe udalak eskolari ematen dion laguntza, bere ekintzak finantzatzeko izaten da eta jarraian doakizue diru hori zertan erabiltzen duguneko adibide batzuk:

- *Barnetegiko egonaldiak, otorduak, ekintzak...*



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- Igeriketa ikastaroa (bi urtez behin), ingelestegia....
- Egun osoko irteerak: Txiki-park, surf,...
- Proiektuen arabera sortzen diren ekintzak (beste eskolekin batera)
- Eta Urteko Planean aurreikusita dauden gainerako ekintzak.

Eta eskolek herri txikien biziraupenean duten garrantzia azpimarratzen jarraitzen dugu, Udalren aldetik ere sentipen hori sumatzen dugularik urtero. Aurten ere zuengana jotzen dugu, ahal duzuen neurrian, Udalak ere Eskolari diru-ekarpena egin diezaion eskatuz.

Gure eskaera hausnartuko duzuelakoan, eta nahi izanez gero, 2016 ekitaldiko gastu-sarreraren agiriak ikus ditzakezuelarik, erantzunaren zain geratzen gara.

Alkizako Herri eskolako komunitateak”

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Alkizako Herri eskolari 1.000,00 eurotako diru-laguntza ematea, burutu behar dituzten ekintzak finantzatzen laguntzeko.

BIGARRENA.-1.000,00eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea 2017 urteko Udal aurrekonturen 481.320.00.01 partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Alkizako Herri eskolari jakinaraztea, **Udalak emandako diru-laguntza zuritu beharko duela, Udaletxe honetan izan dituen gastuen berri emanaz, dagozkion fakturak aurkeztuaz.**

LAUGARRENA.- Erabaki hauen berri Alkizako Herri Eskolari jakinaraztea.

ZAZPIGARRENGO PUNTUA

TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNATUARI 2017KO EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegiko Mankomunitateak 2016ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, aho batez erabaki zutela, Mankomunitateko kide diren Udalek erakundearen langilearen soldata eta auditoria ordaindu ahal izateko, 2017urtean 51.001,00 eurotako ekarpena egin behar zutela. Alkizako Udalarri 185,00 euro suposatzen diolarik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2017 urteari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 185,00 euroko diru kopuruan. Ordainketa hau 2017ko Udal aurrekontuetako 421.431.00.01 partidaren kargura egingo da.

BIGARRENA: 185,00 euroko gastua onestea.

ZORTZIGARRENGO PUNTUA

BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK, 2016 URTEAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Beleburupe Guraso Elkarteak aurkeztu duela, 2016. Urtean Alkizako Udalak emandako diru-laguntzaren memoria eta dagozkion fakturak.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Beleburupe Guraso Elkarteak aurkezturiko 2016 urtean emandako diru-laguntzarari dagokion zuritzea onestea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Beleburupe Guraso Elkarteari ematea.

BEDERATZIGARRENGO PUNTUA

OARGI MENDI ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERARAEN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Oargi Mendi Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera, hau da, 2017ko ekainaren 18an ospatuko den T3T(Tolosaldeko 3 Tontorrek)-eko III. edizioaren antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.

Ikusirik aipaturiko iraupen luzeko lasterketa honetan, partehartzaileak Alkizako herrian izango duela dagokion kontrola.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA: Oargi Mendi Elkarteari 374 eurotako diru-laguntza ematea, datorren 2017ko ekainaren 18an ospaturko den T3T III. edizioa, iraupen luzeko mendi lasterketaren antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.

BIGARRENA: 374,00.- eurotako gastua onartzea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, 2017 urteko Udal aurrekontuetako 481.340.00.02 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Oargi Mendi Elkarteari jakitera ematea, **gastuen kitapena aurkeztu beharko duela Udaletxe honetan, dagozkion fakturak aurkeztuaz.**

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Oargi Mendi Elkarteari ematea.

HAMARGARRENGO PUNTUA

AEK 20.KORRIKAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik 20.Korrika Otxandion hasiko dela, martxoaren 30ean eta Euskal Herrian zehar 2.500km inguru egin ondoren, Iruñean amaituko dela apirilaren 9an. Hamar egunez Euskal Herriko txokoak zeharkatuko ditu, tartean Tolosaldea, apirilaren 4an eta 8an hain zuzen ere.

Ikusirik AEK-k antolatutako 20. Korrika burutu ahal izateko Udalen laguntza behar dutela, horregatik 600 eurotako diru-laguntza eskaera egiten dute.

Ikusirik 2017 urterako Alkizako Udalaren aurrekontuan partida nahikoa aurreikusi dela.

Gaia azterturik Udalbatza honek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- AEK-ak antolatutako 20. Korrikari 600,00 eurotako diru-laguntza onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, 2017 urteko Udal aurrekontuetako 481.335.00.01 partidaren kargura.

BIGARRENA.- 600,00.- eurotako gastua onartzea.

HIRUGARRENA: Tolosaldeko Korrika batzordeari jakitera ematea, **gastuen kitapena aurkeztu beharko duela Udaletxe honetan, dagozkion fakturak aurkeztuaz.**

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Tolosaldeko Korrika batzordeari ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HAMAIKAGARRENGO PUNTUA
ALKIZAKO HERRI OSTATUAN EGIN BEHAR DIREN HAINBAT LANEN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Herri ostatuan hainbat lan egin behar direla, batetik, ahotsak ekiditeko islamendua jartzea eta bestetik argiak aldatzea.

Ikusirik aipaturiko lanak egiteko bi enprekin harremanetan jarri dela Alkizako Udala bere teknikariaren bitartez. Lanak Ardibide Olaetxea C.B. eta Electricidad Zizurkil enpresei esleitzeko proposamena eginaz.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Herri ostatuan ahotsak ekiditeko islamendua jartzeko kontratu esleipena Ardibide Olaetxea C.B. enpresari egitea.

BIGARRENA: Alkizako Herri ostatuako jangelan argiak aldatzeko kontratu esleipena Electricidad Zizurkil enpresari egitea.

HAMABIGARRENGO PUNTUA
DON JUANENAKO INSTALAZIO ELEKTRIKOKO PROIEKTUA EGITEKO AURREKONTUAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Don Juanena eraikineko instalazio elektrikorako proiektua egin gabe dagoela.

Ikusirik beharrezkoa dela Don Juanena eraikinean instalazio elektrikorako proiektua egitea.

Ikusirik aipaturiko proiektua egiteko, aurrekontu bat eskatu dela "Donosti ingenieria y proyectos"-i, bere zenbatekoa 800,00 euro + BEZ-a delarik. Ondoren industriko on iritzia beharko luke, 300,00 eurotako kostua suposatuko duelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA: Donosti ingenieria y proyectos-eri Don Juanena eraikineko instalazio elektrikorako proiektua egiteko aurkezturiko aurrekontua onestea, bere zenbatekoa 800,00euro direlarik (BEZ-a gabe).

BIGARRENA: 800,00eurotako gastua onestea 2017 urteko udal aurrekontuetako 643.920.00.01 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Donosti ingenieria y proyectos-eri ematea.

HAMAHIRUGARRENGO PUNTUA

**MUSIKA EKIPOARENTZAT MIKROFONOA EROSTEKO
AURREKONTUAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako udalaren jabetzakoa den musika ekipoarentzat mikrofono bat behar dela.

Ikusirik aipaturiko mikrofonoa erosteko aurrekontu bat eskatu dela, bere zenbatekoa 295,00 euro direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako udalaren jabetzakoa den musika ekipoarentzat mikrofono bat erostea, bere zenbatekoa 295,00 euro direlarik.

BIGARRENA: 295,00 eurotako gastua onestea 2017 urteko udal aurrekontuetako 623.342.00.01 partidaren kargura.

HAMALAU GARRENGO PUNTUA

BESTE BATZUK

**14.1. XIII.AIZTONDO KLASIKOA "PATXI ALKORTA MEMORIALA"-ri
2016 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA,
HALA BADA**

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, XIII Klasikoa "Patxi Alkorta Memoriala" antolatu ondoren, emandako diru-laguntzen kitapena prestatu duela, Alkizako Udalaren kasuan jarritako diru-kopurua 1.926,41 euro izan ziren.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo Klasikoa Batzordeak XIII. Klasikoak, "Patxi Alkorta Memoriala" antolatu ondoren, aurkezturiko kitapena onesten da.

14.2. XIV.AIZTONDO KLASIKOA "PATXI ALKORTA MEMORIALA"-ri 2017 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikako Batzordeak, XIV. Aiztondo Klasikoaren "Patxi Alkorta memorialaren" aurrekontua bidali duela, guztira 15.167,97 eurotakoa dena, datorren martxoaren 5ean ospatuko dena. Alkizako Udalarari 1.537,88 eurotako ekarpena egin dezan eskaera egiten duelarik.

Ikusirik 2017ko Udal aurrekontuetako 481.340.00.03 partidaren aurrekontu nahikoa aurrirakusten dela gastu honi aurre egiteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikako Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 1.537,88 eurotako ekarpena burutzea, 2017 urteko Udal aurrekontuetako 481.340.00.03 partidaren kargura.

BIGARRENA.- 1.537,88 eurotako gastua onestea.

HAMABOSTGARRENGO PUNTUA ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

15.1. "TOLOSALDEKO GILTZARRIA-K " AURKEZTURIKO MOZIOAREN ONESPENA, HALA BADA

Tolosaldeko Giltzarriak ondorengo mozioa aurkeztu dute:

"Tolosaldeko Giltzarria herritar dinamika da, Tolosaldeko Gure Esku Dagoren enbor beretik sortua, eta gure herrian ere badu ordezkari zabal bat. Martxoaren 19ko galdeketa antolatzea du xede, erabakitzeko eskubidea aldarrikatuzetik egikaritzera pasaz.

Eskualdeko herritar ororen bilgune izan nahi du Giltzarriak, erabakitzeko eskubidea, emaitzaren gaitetik, gizarte kohesiorako dagoen tresna egokiena baita. Nolako Euskal



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Herria nahi dugun erabaki nahi dugu, gure herritik hasita, eskualdearen indarraz, eskualdeko biztanleon iritziaren babesaz.

Udal honek, herritarren ordezkaritza duen heinean, begi onez ikusten du Martxoaren 19ko galdeketa, eta are gehiago, dei egiten die herritar guztiei bertan parte hartzera, iritzia agertzera. Herri bat garelako, erabakitze eskubidea dugulako eta herritarron garaia delako.

Guztion partehartzea ezinbesteko baldintza da erabakitze ariketa bat aurrera eramateko. Guztiok gara giltzarri. Martxoaren 19an, erabaki nahiaren espresio izango gara, ezberdinen arteko topagune, elkarbizitzaren giltzarri.

Europar martxan dabilen trena Euskal Herriko geltokira iritsi da, baita guk gobernatzen dugun herrira ere. Bertara igotzeko gonbitea luzatzen dizuegu herritar guztioi, honako galderaren inguruan zure iritzia ematera:

Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?

Irudikatu dezagun jende zorionsua herri libre batean.

Bozkatu, zure iritzia jakin nahi dugu! “

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, “Tolosaldeko Giltzarria-k” aurkezturiko mozioa bere osotasunean onesten du.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.45 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.